

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Indarkeria eta eraso matxistek emazteki guziei eragiten diete, adina, egoera sozioekonomikoa edo nazionalitatea kontuan hartu gabe, eta edozein unetan agertzen dira, baita jaietan ere. Maila sinboliko eta materialean, gizonak emaztekien gainetik jartzen dituzten botere-harremanetan oinarritzen dira, eta emaztekiak gizonen aitzinean mendetasun-egoeran biziak betikotzea dute helburu. Indarkeria matxista horiek hainbat modu eta jarrera dituzte. Horietako bakoitza detektatzea, ikusaraztea, baztertzea edota gaitzestea ezinbertzekoa eta premiazkoa da adierazpen sexista guztien prebentzioan osorik lan egiteko.

Erran bezala, indarkeria matxista era askotara agertzen da. Batzuetan nabarmenago agertzen da baina, gehienetan, oharkabeen pasatzen zaigu. Indarkeria matxista da emaztekiak gutxiesten dituen portaera oro, mehatxuak, umilazioa, irainak, kontrola, debekuak eta jendaurreko deskalifikazioak. Indarkeria matxista da hedabideetan eta publizitatean emaztekiak objektu gisa aurkeztea. Indarkeria matxista dira sexu-erasoak, norberaren borondatearen kontra sexu-harremanak inposatzea.

Hau lehen mailako arazo da. Emaztekien eguneroko ogia. Jendarte osoaren arazo larria. Oraindik, neurri handi batean, ezkutuan mantentzen da, justifikatu eta tapatu egiten da. Ez da inola ere, ordea, esparru pribatuari dagokion arazo bat. Arazo kolektiboa da, guztiona, eta guztion ardura da indarkeria matxistari aurre egitea, emazteki eta gizonena, herritar, elkarte zein erakundeena.

Indarkeria eta eraso matxistak ezin dira gertaera isolatu edo salbuespen gisa ulertu: sistema heteropatriarkalaren adierazpide bat da, adierazpiderik edo ondiorik larriena. Indarkeria matxista emazteki eta gizonen arteko botere-harremanak mantentzeko baliabide indartsua da. Indarkeria matxista egiturazkoa dela diogu indarkeria-mota honen oinarrian ordena soziala bera dagoelako; indarkeria-mota hau sostengatu, sustatu, babestu eta ahalbidetzen duen sistema oso bat, alegia. Horregatik ezinbertzekoa da nabarmentzea, gaur inoiz baino gehiago, indarkeria matxistak gizon eta emaztekien arteko botere harremanetan duela jatorria.

Indarkeria matxistak jatorri estrukturala duen heinean, aurre egiteko neurriak eta erantzunak ere integralak behar dute izan. Pertsonen arteko harreman-sistema berria sortzea da erronka, gaur egungo jendarte antolaketa eraldatzea, azken finean. Horrekin batera, indarkeriaren prebentzioan egin behar da bereziki ahalegina. Pertsonak askatasunean heziketako dituen hezkuntza sustatu behar da (sistema heteropatriarkalak sortzen dituen emazteki eta gizonen arteko botere harremanak eta emazteki eta gizon izateko eredu bakarrak gaindituko dituena). Pertsonen sozializazio-prozesuei erreparatzea ezinbertzekoa da, hortaz. Era berean, ezinbertzekoa da emaztekien ahalduntzea eta herritarren arteko babes-sareak sustatzeko neurriak martxan paratzea, bakardade sentsazioari eta babesgabetasun egoerei aurre egiteko.

Horregatik, Elizondoko bestetan 5 emaztekik jasan dituzten intentsitate desberdinak eraso sexisten aitzinean, Baztango Udaleko talde politiko guziek, Elizondoko Herriak eta Elizondoko Besta Komisioak adierazi nahi dugu erabat gaitzesten ditugula eraso sexista horiek, eta Mugimendu Feministak egindako elkarretaratze deialdian parte hartzea eskaera luzatzen diogu

Baztango herritar guziei. Elkarretaratzea abuztuak 4, arratsaldeko 8etan, Elizondoko Plazan izanen da.

Baztanen, 2022ko abuztuaren 4a

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

Las violencias y agresiones machistas afectan a todas las mujeres, independientemente de su edad, situación socioeconómica o nacionalidad, y aparecen en cualquier momento, incluso en fiestas. A nivel simbólico y material, se basan en relaciones de poder que sitúan a los hombres por encima de las mujeres, y buscan perpetuar que éstas vivan en situación de sumisión frente a los hombres. Estas violencias machistas tienen diferentes formas y actitudes. La detección, visibilización, rechazo o rechazo de cada una de ellas es imprescindible y urgente para trabajar plenamente en la prevención de todas las manifestaciones sexistas.

Como se ha dicho, la violencia y las agresiones machistas se manifiestan de muchas maneras. A veces más evidente pero, la mayoría de las veces, nos pasa desapercibido. La violencia machista es todo comportamiento que menosprecia a las mujeres, amenazas, humillación, insultos, control, prohibiciones y descalificaciones públicas. Es violencia machista presentar a las mujeres como objetos en los medios de comunicación y en la publicidad. Las agresiones sexuales son violencia machista, imposición de relaciones sexuales contra la voluntad personal.

Este es un problema de primer orden. El pan de cada día de las mujeres. Un grave problema de toda la sociedad. Todavía, en gran medida, se mantiene oculto, se justifica y se esconde. En ningún caso se trata, sin embargo, de un problema propio del ámbito privado. Es un problema colectivo, de todos y todas, y es responsabilidad de todos y todas hacer frente a la violencia machista, de mujeres y hombres, de la ciudadanía, asociaciones e instituciones.

La violencia y las agresiones machistas no pueden entenderse como un hecho aislado o excepcional: es una forma de expresión del sistema heteropatriarcal, la expresión o consecuencia más grave. La violencia machista es un potente recurso para mantener las relaciones de poder entre mujeres y hombres. Decimos que la violencia machista es estructural porque la base de este tipo de violencia es el propio orden social, todo un sistema que la sustenta, promueve, apoya y posibilita. Por eso es vital destacar que, hoy más que nunca, la violencia machista tiene su origen en las relaciones de poder entre hombres y mujeres.

En la medida en que la violencia machista tiene un origen estructural, las medidas y respuestas para combatirla también deben ser integrales. El reto es crear un nuevo sistema de relaciones interpersonales, transformar la organización social actual. Junto a ello, el esfuerzo debe centrarse especialmente en la prevención de la violencia. Hay que promover una educación en libertad de las personas (que supere las relaciones de poder entre mujeres y hombres que crea el sistema heteropatriarcal y los únicos modelos de ser mujeres y hombres). La atención a los procesos de



socialización de estas personas es, por tanto, ineludible. Asimismo, es imprescindible poner en marcha medidas para fomentar el empoderamiento de las mujeres y las redes de protección entre la ciudadanía, para hacer frente a la sensación de soledad y a las situaciones de desamparo.

Por ello, ante las agresiones sexistas sufridas por 5 mujeres en las fiestas de Elizondo, todos los grupos políticos del Ayuntamiento de Baztan, el pueblo de Elizondo y la Comisión de Fiestas de Elizondo queremos mostrar nuestro más absoluto rechazo a estas agresiones sexistas y solicitamos a todos los y las vecinas de Baztan que participen en la convocatoria de concentración realizada por el Movimiento Feminista. La concentración tendrá lugar el 4 de agosto a las 8 de la tarde en la Plaza de Elizondo.

Baztan, 4 de agosto de 2022